

# NUEVA GUINEA



## (Nikaragua), 26 urte ondoren

### Ana San Sebastian Gorostidi

Nikaraguara nindoala jakin zutenean... ea Nueva Guinea herrira hurbilduko ote nintzen eskatu zidan gure herriko alkatea izandakoak.

Laurogeiko hamarkadan, Sandinistak boterera iritsi berriak ziren, eta, haien enbaxadaren bitartez, Europa osoari eskatu zioten Nikaragua herriaren garapenerako laguntza. 1986ko azaroan nikaraguar ordezkari baten bisita izan zuen Hernaniko Udalak, eta Nikaraguan dagoen Nueva Guinea herriarekin lankidetzan aritzea erabaki zuen.

Nueva Guinea Nikaraguako hegoaldean dago, Celaya Central deitzen zaion departamentuan. 2.650 metro koadroko azalera du, eta Managuatik 280 kilometro hego-ekialderantz aurkitzen da, Cocibolca lakutik Karibeko kostarako erdibidean.



**Nueva Guinea. Nikaragua.**

100.000 biztanletik gora ditu. Región Autónoma del Atlántico Sur deitzen diote; estatutu autonomoa dute. Herritarren lanbide nagusia nekazaritza da (frijoleak, tomateak, anana, arrosa...) eta, neurri txikiagoan bada ere, abeltzaintzan ere jarduten dute: behiak hazten dituzte, batik bat, barne kontsumorako.

Tropiko hezean kokatuta, urtean bederatzi hilabetez segidan euria egiten du, eta batzuetan besteko tenperatura 26 gradukoa da.

Lankidetzari helduz, gonbidapena jaso zuten Hernaniko Udaleko ordezkariak bertara hurbildu eta hango errealtatea ezagutzeko. Hartu-eman horien ondorioz, 1988ko otsailaren 9ko pleno berezian, bi herrien arteko "senidetzea" sinatzea erabaki zuten, eta, sinadura horren bitartez, hiri hartako herriko garbitasun plangintzari laguntza emateaz aparte, diru kopuru bat ematea adostu zuten kooperazio fondoa osatzeko.

Dagoeneko hogeita sei urte pasa dira. Zertan geldituko ote ziren garai hartako ahaleginak? Zer izango ote zen zinegotzi eta alkateen ibiliko haietaz, eta Nueva Guineara bertara zer garapen emango ote zuten horrek denak? Eta guk... hogei mila eskas biztanleko herri honek, zer eragin izan ote zuten herritar haiengan?

Bat-batean sortzen zitzaizkidan galdera hauek guztiak eragin zuten baietza ematea gure alkate ohiari. Eta bidaia prestatuta neukan ibilbidean Nueva Guinea herriari pare bat eguneko tarte egitea erabaki nuen.

Orokorrean esango dizuet bidaia zoragarria izan dela, aberatsa benetan, garai hartan protagonismo handia izandako pertsonekin topatu naiz, eta, bai kale bazterretan eserita bai bulego bat edo bestea bisitatuz, garai hartako bizipozetan murgildurik egin ditut hainbeste egun. Baina oraindik Nueva Guineako egunak kontatzera natorkizue.

Hernaniko Udal Artxibotik hartutako pare bat argazki, garai hartakoak, esku tartean neuzkan bertara iritsi nintzenean. Besterik ez neukan. Argazkietan, bi herrietako orduko alkate eta zinegotzi batzuk... eta horrela jaitsi nintzen autobusetik, eta udaletxe aldera abiatu, edadeko langileren baten bila! Argazkietako jantziek eta bertan ikusten ziren pankartek argi adierazten baitzuten noizko kontuekin nentzen.



**Horrela zen Nueva Guinea orain dela 26 urte.**

Merkatu aurreko aparkalekua zaintzen zuen langile batengana bidali ninduten eta hark, argazkia eskuartean hartuta, honela esan zidan sekulako poza adieraziz "pero este es nuestro querido alcalde... y el concejal...".

Lasai egoteko, horiekin harremanetan jartzea sekulako ohorea zela berarentzako... eta bat-batean aparkalekura sartzeraz zihoana gelditu eta ni halako etxera eramateko esan zion, "alkatearen" bila nobilela...



len argazkiak eskuan nituelarik, topatzen nituen adinekoiei galdezka non bizi zen argazkian azaltzen zen hura. Esan behar dut den-denak argazkia ikusi eta ezagutzen zutela, nahiz ia hogeita hamar urte paseak izan. Halako batean zinegotziaren etxe aurrera iritsi eta bera sarreran zegoen neure zain. "Zuretzako ez dira urteak pasa" esanez agurtu nuen. Argazkia erakutsi eta kontatu nion nola galdetutako guztiek aise ezagutzen zuten argazkian.



**Nueva Guineako udaletxea.**

Autoko atepak zabaldu eta buelta emanaz ziztu batean... etxe aurrean utzi ninduen.

Urteak ez dira alferrik pasa eta semeak hartu ninduen etxeko sarreran (alkate ohia sindikatuko bilera batean zegoela eta, berandu etorriko zenez, berak emango ziola neure presentziaren berri) eta argazkian agertzen ziren zinegotziekin hitz egingo zuela eta beren etxetara bideratuko ninduela.

Helbidea eman zidan: hiru kuadra iparrerantz, eskuinera egin eta handik lau kuadretara berantz jo... Nik, bai, bai, eta buruan sekulako kale nahasketa nuela abiatu nintzen. Hirugarren kaleko izkinara iristerako, hantxe nenbi-



**1988an zinegotzi eta alkate zirenak, garaiako argazkiarekin.**

Etxe barrura sarrarazi, emaztea aurkeztu eta bakoitza bere herriko berriak kontatzen hasi ginen.

Beraien hasi berriko ilusioak, horiek sortzen zituzten egin beharrak, jendearekin asmatu nahia, eguratsak zigortzen zituen garaiak... eta hemen, niregana zuzenduta, eskertu nahi izan zuen Hernani herriak emandako laguntza. Ni egia esan ez nengoen oso jantzia jakiteko zer eman edo jaso genuen "senidetze" hartatik. Nik behin eta berriaz esan nien bisita pertsonala zela, ez nindoala Udala ordezkatzuz, eta bertan egondako alkateak eskatu zidala hurbiltzeko. Hurrengo goizerako gelditu ginen Hernaniko herriarekin hitzarmena sinatu zuen alkatearen etxean. Zain zeuden bertan ni iritsi nintzenerako. Semeak aurkez-

tu ninduen. Haiek "alkate-ohi" haren besarkadak eta esker onak gure Hernani herrirako! Bertan egin genuen bilertxo bat, eta oraingo alkatearekin ordua hartua genuenez, goiza udaletxean pasako genuela adierazi zidaten.

Hori bai, etxeko bilera hartan esan zidan beraiek sinatu eta laster izugarritzko zikloia sufritu zutela (Juana izaneko zikloia) eta herriko etxe guztiak teilatu gabe gelditu zirela: "Zuen herriak (Hernani) bidali zuen sekulako kalitate oneko materiala berriz ere teilatuak egiteko. Hor dituzun zentroko etxe guztien teilatuak Hernanik bidalitako laguntzari esker eginak dira". Eta hau esanda, aipatu zidaten, baita ere, urte gogorrak pasa izan dituztela, hainbeste lan egin ostean beste indar politikoak iritsi zirela alkatetza hartzera, eta beraiek egindako guztien artean Hernanitik bidalitako armarría bera ere desagertu zela... Pena handia zutela, baina alkate berriarekin elkartzen ginenen honen guztiaren berri emango ziotela.

Ni ez nintzen inor, baina herriko armarría berreskuratzea... nire kontu! Nola ez nien, bada, hainbeste eskainiko hernaniar izateaz hain harro sentiarazi ninduten haiei?

Gaur agintean dagoen alkatea emakume irakaslea da. Ni ere "ofizio" horretakoa izanak filing-a sortu zuen gure artean. Pare bat ordu pasa genituen atzoko eta gaurko kontuekin. Berak berriro eskertu nahi izan zien hernaniar guztiei garai hartan hain urrun eta hain gertu izatea. Berriro aipatu zituen hemendik bidalitako materialaren kalitatea eta armarría desagertu zeneko istorioak.

Bukatzeko, alkateak zioen Danielekin (Ortegarekin) argazki bat atera behar genuela. Ni hernaniar izateaz momentu hartan hain handi sentitzen nintzen... Daniel izena entzun nuenean... sekulako urduritasuna sentitu nuela... Behin eta berriz nioen bisita pertsonala zela... eta hor jartzen da alkatea Danielen irudi ofiziala duen koadro azpian, ni gonbidatuz bere ondoan jartzera argazkia atera ahal izateko.

#### **Garaiko zinegotzia, ni, oraingo alkatea eta 1988an alkatea zena.**







Jabetu nintzanean Danielen irudi ofizialaren ondoan argazia ateratzera gindoazela... nire urduritasun guztia sekulako algara bihurtu zen, ezin izan nuen "disimulatu" eta zinegotziari kontatu nionean nire algaren zergatia, bera hasi zen Danielen koadroari hitz egiten eta alkatea eta guztiok sekulako bukaera ona eman genion tarte hari.

Bulegotik ateratzerakoan herriko kazetari bat zain genuen, hernaniarrarekin hitz egin nahi zuela eta kalitatezko material hura bidaltzeagatik eskertu, eta, bide batez, elkarrizketa txiki bat egin nahi zidan... Orain bai! Orain hernaniar bezala erantzun behar nuen, beraiek horrela ikusten nindutelako eta ni hantxe, munduko urduritasun guztiakin, baina hernaniarra izateari uko egin nahi gabe.

Mikrofonoaren aurrean herritar bezala erantzutea zen nire erronka. Egia esan oso eroso suertatu zitzaidan. Aurkezpenean, garai hartan gure herriko laguntzak jakatu zuen paperaz aritu zen kazetaria eta, gaur egunera etorri, galdetu zidan nola ikusten genuen Hernanitik Nikaragua, kontuan izanda zenbat emakume nikaraguar etortzen den gurera lan bila...

Erraza egin zitzaidan erantzutea, guk ere badaukagu-eta zer eskertua emakume nikaraguar horiei. Azpimarratu nien azkeneko urteetan gure aitona-amonon zaintzan

laguntzaile ezin hobeak bihurtu zaizkigula. Beren papera izan dutela adineko pertsonen artean konfiantza irabaziz eta leialtasunez jokatu. Hori eskertzeko dugula.

Baina ez Euskal Herrian bakarrik, Europa guztia krisi garaian sartuz gero, aitona-amonon papera familia barruan aldatzen doala eta nikaraguarri ordaintzen zitzaizkion diru haiek orain familiako kideen artean ordaindu behar direnez, gero eta emakume nikaraguar gutxiagok izango dutela aukera horrelako lanetan jarduteko.

Zer iruditzen zitzaigun lan bila etortzearena... Globalizazioa kontuan hartzen badugu, ez dira nikaraguarrak okerraren dutenek beren herrialdean borroka egiteko. Europa osoan lan munduan dena hankaz gora doa, esplotazioa gero eta handiago da eta herritik kanpo bizitzea (lana eta errekurtsio gabe) gero eta zailagoa gertatzen ari da. Beraz nik animatzen nituen bertako gazteak herriko egituretan murgiltzera eta beraien esfortzuak beren herriarentzat bideratzen joatea.

Gero pare bat egun pasa nituen hemengo eta hango proiektuak bisitatuz eta, zazpi mila besarkada eman ondoren, goizeko hiruretan hartu nuen autobusa Managua iristeko. Aprobetxatu nahi dut esateko Managua (Nikaraguako hiriburua) ez duela ezer handirik ikusteko, baina bide guztiek Managuatik pasa behar dute.